



2026SECG0002  
2.bilera: OHIKOA 2026/03/26

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA**

BILERA ZK.: 02/2026  
EGUNA: 2026/03/26  
HASIERA ORDUA: 17:00  
AMAIERA ORDUA: 17:35  
TOKIA: Debako Udaletxeko Bilera gela, 2. solairua.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.  
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.  
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.  
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba  
Idazkaria: Iñaki Galdos Landa

### **EZ BERTARATUAK:**

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.

### **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

#### **1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.**

Aurkeztu zen 2026ko otsailaren 26an eginiko bileraren akta Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2026ko otsailaren 26an eginiko bileraren akta.

#### **2. Martxoko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.**

Alkateak azaldu zituen 2026ko martxoko Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

2026ko otsailaren 23tik, 2026ko martxoaren 23ra arte onartutako Alkatezaren dekretuei buruz, azaldu zuen ez zegoela ezer berezirik, eta interesgarrienak aipatu zituen.



2026SECG0001  
1.bilera: OHIKOA 2026/02/26

Onartzeko proposatzen zen Herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabego publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantzaren (TAO) aldaketari buruz, proposatzen ziren sei aldaketa puntualak zeintzuk ziren aipatu zituen

Onartzeko proposatzen zen Debako Udaleko aurrekontuen 1. kreditu aldaketaren espedienteari zegokionez, Paseo Estaliko obren 2. fasea burutzeko altxortegiko gerakinetik 274.000 € hartuko direla aipatu zen.

Obra hori Eusko Jaurlaritzaren aldetik diruz lagunduta zegoela, eta horrez gain Estatuak ematen dituen "2% cultural" dirulaguntzan ere eskatuta zegoela aipatu zen

Deba gune tentsionatua izendatzeko eskaera erregistratzeko proposamenari zegokionez, aipatu zen eginik zeuden diagnostikoa, justifikazio memoria eta ekintza plana Eusko Jaurlaritzan erregistratzea proposatuko zela. Ekintza planak, aldaketaren bat izan lezakeen arren, aldaketa horiez guztien artean zehazteko barne konpromezua hartua zela aipatu zuen.

Azken puntu bezala, Anton Garay EAJ udal taldeko zinegotziaren karguari uko egitearen berri emango zen. Bide batez, Debaren alde egindako lanaren eta ekarpenengatik, Udalaren eskerrak emango zizkiotela aipatu zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

### **3. Eskari eta galderak.**

Ez zen egon eskaririk ezta galderarik ere.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:35ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Alazne Txurruka Allika  
Alkatea

Iñaki Galdos Landa  
Idazkaria